

noaua

 **Usurbil**
osasuna atez ate

**Iñaki Añorga Suitzako
Swissman triatloian
arituko da larunbatean**

**San Joan jaiak,
gehigarri berezia**

**Larunbat honetan,
Usurbil FT eguna**

 **Usurbil**
osasuna atez ate

Erreusarako ontzi grisa

Gure pisukide berria

Lehenengo 6
erosleentzako,
garaje bikoitza
banakako
prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 €^{tik}



12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN



VIVIENDAS LANIN S.L.

Lazkano Pasealekua, 1^a Behea
20009 Donostia

E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com



OGI BERRI
ARTISAU OKINAK

ORDUTEGI BERRIA:
egunero 06:00tik 21:00ra

asteburutan ere
gaueko 21:00ak arte!

PUNTAPAX KALEA 16 (ARTZABAL)

**bulegorako altzariak
eta hornidura**

**paper dendarako
artikuluak**



Ugaldea Industrialdea, 11
Tfno.: 943 365 892
Faxa: 943 371 686
20170 USURBIL (Gipuzkoa)
manpel@manpel.com
www.manpel.com



Albiste iruditan

Zumba Festako begiraleen pausuei adi-adi



Gazte eta heldu, Zumba Festaren protagonista izan ziren. Dantza eta kirola uztartzen ditu jarduerak honak.

Ekainaren 7an, Zumba Festa ospatu zen kiroldegian. Jende askok hartu zuen parte, argazkian ikus daitekeen moduan. Antolatzaile-

en esanetan, "gutziz arrakastatsua izan zen. Dena oso ondo ateratzen eta primeran pasa genuen, beraz eskerrak eman nahi dizkizuegu bertara azaldu zine-

ten zumba zale guztioi, zumba monitorrei (Betsa eta Eneida), beraien laguntzaileei eta Usurbilgo Udalari".

Laburrean

Ostiral honetan, ikasleen azken klase eguna

Ostiral honetan, ekainaren 20an emango diote hasiera 16 urterako arteko ikasleek, ia hiru hilabete luze izango dituzten merezitako oporrei. Irailan itzuliko dira ikasgeletara. Irakasleek beranduxeko, ekaina amaieran agurtuko dute 2013-14 ikasturtea.

Udari ongi etorria, larunbatean Gaztelekuan

16:00etatik aurrera, DBH 1. mailakoentzat. Udari begirako ekintza gehiago antolatu dituzte. Ekainak 23 astelehena, 17:00etan pelikula. Ekainak 26 osteguna, 16:30ean Futbol Txapelketa. Ekainak 30 astelehena, 16:30ean Kiroldegiko tatarrietara, azken hau DBH 3-koentzat.

Artzabalgo pintura ikastaroko erakusketa

Urtean zehar egindako lanketa plazaratzeko unea heldu da. Ostiralean inauguratuko dute erakusketa Sutegin, 19:00etan, baina 15:30etatik aurrera zabalik egongo da. Larunbatean aldiz, 10:00etatik 13:00etara goizez, eta 17:00-20:00 artean arratsaldean. Igandean, 10:00-13:00 artean.

noa.ua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkartea@noa.ua.com ||| www.noa.ua.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorra: Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noa.ua.com.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noa.ua.com: Imanol Ubeda, Ariz Lasarte, Aizpea Aizpurua.
Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Maria Angeles Arruti, Aina

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udaregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Aritz Gorriti

Behingoz, pitzatzen hasia

Bazoaz, bazoaz. Urruneko herrialde hartara itzuliko al zara orain? Erakartzen zaituen "beste" harekin? Zalea zara eta zu ehizean, baita basotik kanpo ere. Lasai joango zara noski, zure bizitzako azken etapa tripaz gora egotera. Beno, orain arte bezala bizitzen segitzera alegia. Lasai gainera, semea aitaren etxea defendatzen utzi baituzu. "Marroia" hark jan dezala ezta? Plan biribila. Zuretzat behintzat bai. Bereztat baita? Ez dut uste.

Semeak, emaztearekin batera, zuen arbaso hark, ahots fineko gizon bibotadun txiki hark izaten zuen antzeko esku mugimenduekin jendea agur-

tzea ez du aski izango. Ezta irribarregoxoz hortz zuriak erakustea ere, kalera irtetea. Zorionez jada, ez da aski. Denak ez du balio. Poltsikoak txanponez gainezka eduki eta ukiezinak izan arren, bada kontrolpean izatea geroz eta zailagoa zaizuen H faktorea. Zuen bidai ezkutua, negozioak, ehizaldiak, etxeak, maitaleak finantzatzen jarraitzen duten horiek. Interesako denean baino akordatzen ez zaretzen horiek. Urtetan kate motzean lotuta, isilpean mantendu nahi izan dituzuen herritarrak.

Bor-bo(i)rka dituzue sare sozialean orain, kalean manifestatzen. Eta baita orain arte zuen etxeko trapuziki-

nak isilpean gordetzen zituzten hainbat hedabideetan ere. Eta hau nola irentsi behar du semeak, ostegun honetatik aurrera, indigestiorik izan gabe?

Denbora luzez agian erantzunik izango ez dudana arren, galdera bat argitzeko jakinmin handia dut. Zureari segida emango dio semeak, baina noiz arte? Bidea orain arte bezala, iluna eta malkartsua izango da, ziur. Ongi erakutsi duzu hori zuk. Baina argi dago zer bait; zuen etxea, orain bai, pitzatzen hasia da. Jarri petatxua, kiratsa aldentzeko leihoak ireki, baina denborarekin ziur pitzadura berriak agertuko dira egiturari. Oraindik luze

joko duen arren, denbora kontua da. Azkenean, zentzurik ez du zuen existentziak. Eta oso posizionamendu ahula da, gizon txiki bibotadun baten eskutik jasotako herentziaren legitimitatea hamakarda askoz gehiagotan bizirik mantendu nahi izatea. Are ahulagoa, itxuraz baino eredugarria ez den familia batengan oinarritzea, ustez batua, bakarra eta askea den herri bat.

Eta herritarrak txistuka kalean. Duintasunagatik, hobe goiz erretiratzeta ezta? Erabaki garaiz. Entzun behingoz herriari eta bueltatu iragenera. Urrutiratu zuen herritik. Ez zaituzte maite.

Maialen Unanue | Luis Aranalde | Imanol Ubeda | Idoia Torregarai | **Aritz Gorriti** | Joxe Piñas | Nerea Zinkunegi

Ika-mika

Aitzaga elkarteko zuzendaritzari

Lehenik eta behin Aitzaga Elkartea zoriandu nahi nuke eta aurrerantzean ere urte askotan segi dezatela lanean herriaren alde opa diot. Baina hau aipatu ondoren, bai Udalean 2013ko urriko Udala Batzordean aurkeztu zenuten mozioan eta baita NOAUAren maia-

tzaren 30eko alean, Aitzagaren 20. urteurrena dela eta, bertan argitaratzen den artikuluan jasotzen da "elkartek atekak beti irekiak izan dituela ezkerreko eta abertzale sentitzen garen guztiontzat".

Adierazpen horien aurrean zera adierazi nahi dizuet: elkartearen

ateak itxita izan ditugula hainbat urtez ezkertiar eta abertzale garen hainbat pertsonak gure pentsakerara medio, iragana iragan garai berriak ditugu eta elkarlanerako nire presuntasuna adierazi nahi nuke.

Lontxo Zubiria

Udal zerga eta tasen ordainagiri helbideratuak

SEPA sistemarekin aldatu egin da orain arte etxean jasotzen den banku-informazioa. Bankuak bidaltzen duen ordainagirian oinarritzako datuak soilik agertzen dira.

Datu horien artean dauden erreferentzia eta klabearen bidez, ondorengo web-orrian udalak luzaturiko ordainagiriaren xehetasunak ikusiko inprimatu ahal izango dira.

<http://dokumentuak.gipuzkoa.net>

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero.

Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: ekainak 27. Idatzia ekartzeko azken eguna: ekainak 23 (eguerdiko 11:00ak).

ETXETRESNEN KONPONKETAK
Moduz, azkar eta prezio onean
MARKA GUZTIAK

645417665
XABIER
Usurbil

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
urdaintzi@euskalnet.net
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurra 2, 943 11 82 53

WWW.NOAUA.COM
USURBILGO ATARIA

Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkarte bihurtu da Gipuzkoa Zero Zabor

Errauste planta proiektua bertan behera geratu ostean, iazko azarotik alegia, hondakinen kudeaketan aro berria zabaltzarekin batera berrantolatze prozesu batean murgildu zen Gipuzkoa Zero Zabor (GZZ). Barne hausnarketa lanean aritu da azken hilabete hauetan. Berriz kalera ateratzea erabaki dute orain, urtebeterako plangintza diseinatuta eta marka eraberrituarekin; Gipuzkoa Zero Zabor izan dena, aurrerantzean Zero Zabor Ingurumen Babeserako Elkarte gisa ezagutuko baitugu. Donostian deitu dute aro berri honetako lehen agerraldia ostegun honetan, ekainaren 19an, arratsaldeko 18:00etan Easo plazan.

“EUSKAL HERRI OSORA IREKITZEA ERABAKI DUGU”
Hurrengo urtebeterako ibilbide orri bat diseinatuta dute Zero Zabor mugimenduko kideek. Horretan aritu dira azken hilabete hauetan. Aurrera begirako



Indarrak batzeko apostua egin dute. Ekainaren 19an agerraldia iragarri dute.

ezaugarri, baldintzak, aukerak, eta erronkak zehazten. Eta bestalde, mugimendu barneko berrantolatze bat eman da. Orain arte GZZ barnean sortuak zeuden zero zabor talde desberdinen indarra batzea erabaki dute. Hileotako prozesutik, 80 kide dituen talde bakarra osatu dute. Gipuzkoatik haratago begira egongo dena, hondakinena gogorarazten dutenez, “mundu mailako arazoa da” eta. Horregatik, “Gipuzkoaz gaindi, taldearen jarduna Euskal Herri osora irekitzea erabaki dugu”. Orain

arteko helburu nagusiez ahaztu gabe halere, “Zero Zabor eredu Gipuzkoan aurrera ateratzea” lehenetsitasun estrategikoa izaten jarraitzen baitu mugimendu eraberrituarentzat.

Horrez gain, logo bera baliatuko dute etorkizunean eta taldearen bereizgarri nagusiak ere bere horretan mantenduko dituzte. “Taldea arrazionala, baikorra, eraikitzailea, berritzailea, zabala, kritikoa eta autokritikoa. Ezaugarri horiek gidatuko dute gure ibilbidea”, berri eman dute bilgunetik.

Aisialdiko udal diru-laguntzen deialdia

2013-2014 ikasturtean zehar Eusko Jaurlaritzak homologaturiko aisialdiko begirale edo zuzendari ikastaroa euskaraz egin duten usurbildarrek, udal diru-laguntzak eskatzeko aukera dute ekainaren 27ra arte, azken egun hau barne dela. Baldintza hauek bete behar dira:

- Ikastaroak irauten duen denboraren %80a Usurbilen erroldatua egotea.
- Ikastaroa euskaraz izatea eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izatea.
- Ikastaroaren alderdi teorikoa gainditzea eta araututako gehieneko epearen barruan titulua lortzea.

tu beharko dira.

Hauek izango dira banatuko diren diru-laguntzak:

-Begirale ikastaroa: matrikularen %50 (gehienez ere 250 €).

-Aisialdiko zuzendari ikastaroa: matrikularen %50 (gehienez ere 150 €).

Informazio gehiago: usurbil.net

Eskariak udal erregistroan aurkez-

Antzerki Txiki Taldekoen azken emanaldia

Oporretara joan aurreko azken emanaldia eskainiko dute larunbat honetan, ekainaren 21ean. Eguerdiko 12:00etatik aurrera, Sutegiko auditorioan.

“Ez da kasualitatea” bertso saio musikatua

Parekidetasun Kontseilutik aste honetarako antolatuta duten “Gorputz moreak, gorputz askeak” zirkloaren baitan ospatuko da ekitaldia, ostegun gau honetan, 22:00etatik aurrera Sutegin. Rosi Lazkano, Odei Barroso, Uxue Alberdi, Nerea Elustondo eta Ainhoa Agirreazaldegi bertsolariek parte hartuko dute. Haiekin, Eneko Sierra eta Ixak Arruti musikariek. Gaijartzen, Ainhoa Aranburu.



Ekainaren 19an, Sutegin.

Udako Txokoak Aginagan

Udako txokoetan apuntatzeko epea ekainaren 20 arte luzatzea erabaki dute Aginagan.

Zaintza egiteko pertsona bila

Hurrengo ikasturterako goizeko zaintza egiteko pertsona euskaldun baten bila ari dira. Haurrekin zerkusia duten ikasketak kontutan hartuko dituzte. Bidali kurrikuluma aginaga@eskolatxikiak.org

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAĞUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Iñaki Añorga, Suitzan

Erroka berria du txokoaldetarrak. Larunbat honetan, ekainaren 21ean, Swissman, muturreko triatloi proban parte hartzera doa Suitzara, lagunekin egingo duen opor bidaia baten baitan. Goizaldeko 5:00etan hasiko duen lasterketa luzea, Suitzako paraje ederretatik barrena egingo du, igerian, bizikleta gainean eta korrika. 35-40 herrialdeetako 250 lasterkaririk parte hartuko dute. Alboan izango du Iñakik, berekin hemendik joandako lagun taldea. Haien zereginarenekin ere garrantzitsua oso; kirolaria autoz jarraitu eta animatzeaz gain, proba eta proba artean, jan edanarekin, arropa eta materialez hornitu beharko dute usurbildarra. Txokoaldekoak ikasturte osoa darama, lehiatik kanpo, larunbateko hitzordua prestatzen.

NOAUA! Zer erronkarekin zozaz Suitzara?

Iñaki Añorga. Iazko txapelduinak 11 ordu eta laurdenean amaitu zuen proba. Nik ez dakit zenbatean ibiliko naizen. 12 orduko bueltan ibiltzea gustatuko litzaidake. Ikastera baina era berean lehiatzera noa. Ikastera, oso distantzia luzea baita, eta berria naiz honetan. Baina erabat konbentziturua nago ondo egin dezakedala eta horregatik ere, lehiatzera noa baita.

Orain arteko zure kirol ibilbideko probarik gogorrena da hau?

Proba gogorrena baino luzeena. Baita gogo gehien ditudanak ere. Proba motzetan gehiago sufritzen dela uste dut. Hemen gehiago da sufrimendu psikologikoa. Ez dakit mentalki prestatua egongo naizen, proba egun bertan ikusi beharko dugu.

Ikasturte honetan proba honetan zentratua ibili zara?

Azken urteotan duatloi probe-



Swissman muturreko triatloi proban hartuko du parte larunbatean. "Prest nagoela uste dut"

Azaroan jakin zuen hautatua izan zela proban parte hartzeko.

"Geroztik, dena planifikatzeko aukera izan dut. Oso lasai hartu dut", aitortu digunez.

tan parte hartu ostean, txipa aldatzea erabaki nuen eta egia esan, oso ondo etorri zait. Oso gutxi lehiatu dut eta entrenatu pilo. Batez ere bizikletan kilometro pilo egiten aritu naiz, ehuneko ehunetan proba honi begira. Eguna heldu da. Ez zait batere luze egin.

Prestaketa lanak hain ondo bideratzea espero zenuen?

Banekien ondo nindoala baina beti ere lasterketetan parte hartu gabe, zalantza puntua bannuen. Halere, ez lehiatzeak aste eta hilabeteak azkarrago pasatzea ekarri dit. Presiorik gabe, asteburua heldu, eta dortsala jarri orde, talde kideekin, lagunekin entrenatzen aritu naiz, eta gustura. Asteazken zehar ere, entrenatzeko aukera gehiago izan ditut.

Nola jabetzen zara, proba baterako prest zaudela?

Kasu honetan ez dakit, ez baitut esperientziarik halako proba batean. Badakit proba bakoitzaren egiteko prest nagoela. Baina hirurak batera, korri, igeri eta bizikletan, eta gainera,

azkar egin behar horrekin, neure buruarekin presio pixka bat badut. Urduritasuna kontrolatu behar. Halere, prest nagoela uste dut, egin beharrekoa egin dut.

Opor bidai baten barruan parte hartuko duzu proban?

Oporretara noa Suitzara, lekuak ezagutzera. Ilusionatua nago. Probaren formatua oso gustukoa dut, oso erakargarria iruditzen zait. Banakako lasterketa izango da, baina ordubetero lagunak ikusiko ditut. Bereaiek lagundu eta animatuko naute, publikorik ez baita egongo. Denon artean familia giroan egongo garela pentsatzen dut, 250 parte hartzaile bakarrik baikara. Giro polita egongo da.

250 kirolari. Hautaketa nola egin da?

6-8 profesional aukeratzen dituzte. Aukera zegoen nork bere kirol emaitza nabarmenak bidaltzekoa. Euskal Herri mailan ditudanak bidali nituen nik. Zozketan probatu beharko nuela esan zidaten. Zozketan

plaza egokitu zitzaidan. Azaroan esan zidaten barruan nengoela eta lasaitasun handia hartu nuen. Orditik entrenatu, dena planifikatzeko aukera izan dut. Oso lasai hartu dut.

Streaming bidez jarraitzeko aukera

- Ekainak 21, larunbata.
- Non: Suitza.
- Abiatzeko ordua: 5:00.
- Probak: 3,8 kilometro igeri, 180 kilometro bizikletan, 42 kilometro korrika.
- Ibilbidea: Lago Maggioreko irla batetik abiapuntua. Irlatik lehorrera igerian. Bizikletan, Suitza barnealdera, Alpeak zeharkatuz. Besteak beste, hiru portu igo beharko dituzte. Lasterketa amaiera, 2.200 bat metroan, Eiger mendi azpian.
- Streaming bidez jarraitzeko aukera, www.suixtri.com atarian. Iñaki Añorgaren Facebook orrialdean ere probaren berri emango dute. Bloga ere badu txokoaldetarrak: inakianorga1.blogspot.com

Zegama-Aizkorri proba, "oso hunkigarria"

NOAUA! Triatloi probetan zabilzatenontzat, proba hau opari bat dela ulertu behar dugu?

Iñaki Añorga. Poz handia hartu nuen proba honetan parte hartuko nuela jakitean. Iaz lehen edizioa egin zenetik joango nintzela esana nuen. Baiezkoa eman zidatenean pisu handia kendu nuen, motibaziorik gabe ikusten bainintzen. Duatloi probek jada ez zidaten hainbeste erakartzen eta.

Zer ekarpen egingo dio proba honetan parte hartzeak, zeure aurrera begirako kirol ibilbideari?

Aurtengorako bi helburu jarriak nituen; Zegama-Aizkorri, iaz asko gozatu nuelako eta Swissman proba hau. Gero uda lasai hartuko dut. Proba hau nola jotzen den, zenbat sufritu edo



Maiatzaren 25ean Zegama-Aizkorri proban hartu zuen parte Iñaki Añorgak.

gustatu zaidan, horren arabera, ikusiko dut beste proba bat bi-

latu, esperientzia hau errepikatu edo ia udazkenean duatloietara itzultzen naizen. Ez dakit.

Zegama-Aizkorri proban parte hartu berri duzu. Barrutik nola bizi duzu lasterketa ezaguna?

Deskribaezina da. Ezusteko handia izan zen neuretzat iaz, lehen aldiz parte hartu nuenean. Zegamako proba begiz jota izan dut beti. Aizkorri gora bizitakoa ez zait sekula ahaztuko. Zenbat jende mendian, oso hunkigarria izan zen. Aurtun pena pixka batekin geratu naiz.

Agian larunbateko lasterketan kontzentratuago nengoelako edo, aurtun ez dut bizi izan izako esperientzia bera. Hala ere, bizitzeko moduko esperientzia da. Urtero parte hartu asmo dut.

Egin klik, Orioko Kilometroak laguntzeko

Martxan da, urrian Orion "Erria Txikota!" lelopean ospatuko den Kilometroak jaialdia laguntzeko Klikmetroak elkartasun ekimena. Laugarrenez abiatu duten egitasmoaren helburua, datorren Kilometroak jaialdirako babes ekonomikoa lortzea da. Sartu klikmetroak.kilometroak.net atarian, eta bertan agertuko zaizuen Gipuzkoako ikastolen aldeko jaialdiko 5.632 metroko zirkuitu birtualari ahalik eta bira gehien ematea nahi dute antolatzaileek. Milaka herritarren parte hartzea eskatzen du eki-



menak. Egitekoa erraza da; Klikmetroak egitasmoko web orrian sartu, norberak bere metroan klik egin eta e-posta, izen abizenak, argazkia eta gehienez 250 karaktereko mezua

idatzi dezala. Bisitari bakoitzak eginitako ibilbideko metro bakoitzeko babesleek ekarpen ekonomikoa egingo dute 2014ko Kilometroak jaialdiaren alde.

Usurbilgo Kilometroak jaialdia antolatzeko laguntza behar da

2015ean Usurbilen ospatuko da Kilometroak. Prestaketa lanetarako herritarren laguntza behar du Udarregi Ikastolak. Hainbat lan batzorde osatu asmo dituzte, ardura hauei guztiei heltzeko. Udarregi Ikastolako web orrian sartzen bazarete (udarregi.com), bertan dagoen apuntatzeko inprimakia beteta eman dezakezue izena.

Edota Udarregi Ikastolako idazkari-zarara deituta, 943 36 12 16 telefono zenbakira.

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak....

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Ibon Goikoetxea, ingurumen teknikaria: “Erreusaren ontzia gutxiagotan ateratzen duena saritu nahi da”

Beste behin, hondakinen kudeaketan aitzindari Usurbil. Zero Zabor norabidean urrats berri bat ematera doa udalerrri hau, uztailaren 6an. Hondakinen sortzez besteko ordainketa sistema berria aplikatuko zaio igande horretatik, erreusaren bilketari. Ontzien bidez kalkulatu du Udalak aurrerantzean, birziklatu ezin den zatiagatik ordaindu beharko dugun tasa. Uztailaren 6rako dena prest izateko, ontziak banatzen hasiera doa Udala, ostiral honetan. Ibon Goikoetxea udal ingurumen teknikariak azaldu digunez, 2.300 bat ontzi banatuko dituzte guztira.



“Uztailaren 6tik aurrera, igandeetan, erreusa kubo hauetan atera beharko da”

Erreusarentzako kuboak banatu ahala erabiltzen hasi daitezke herritarrak?

Ibon Goikoetxea: Organikoaren kubo berdina izango da, kolore grisekoa. Banatzen dugun unetik erabiltzen hasi daiteke. Hobeto, hartara ohitzen joateko. Uztailaren 6tik aurrera igandeetan, erreusa kubo hauetan atera beharko da.

Bilketari dagokionez zer aldaketak ekarriko dute ontziok?

Herritarrek erreusa kuboetan atera beharko dute igande goizetan. Biltzaileek lehenbizi irakurgailuekin ontzi guztiak identifikatuko dituzte eta gero bilketa egingo da. Pardelak, gaxotasunen ondorioz sortutako hondakinak, edo animalia kakak, orain arte bezala poltsatxo txiki batean aparte utzita jasoko ditugu.

SORTZEZ BESTEKO ORDAINKETA SISTEMA

Hondakinen sortzez besteko ordainketa sistema, uztailaren 6tik aurrera martxan. Nola egingo da kalkulua ontziok? Uztailaren 6an abiatuko da. Herritarrek honen ondorioa urrian pasako zaien fakturan nabaritu-

ko dute lehen aldiz. 16 euroko tasa finko bat ordaindu beharko dute, etxebizitza arrunt bat bada. Eta gero zenbatetan ateratzen den ontzia, horren arabera kopurua gehituko zaio. Zerbaki potolotan esan liteke, hamabostean behin ateratzen duen herritarrak, orain bezala ordainduko dituela tasak. Astero ateratzen badu 5 bat euro garestituko zaio hiruhilabeteko hondakinen tasa eta hiru astean behin, hilean behin edo gutxiagotan ateratzen badu, jada merkeago izango da. Erreusaren ontzia gutxiagotan ateratzen duena saritu nahi da.

Gastuak aurrezteko bide bat ere bada?

Aurreikusten duguna da kubok beteta aterako ditugula, poltsatxo txiki gutxiago egongo direla, eta tasa berriarekin, bildu beharreko kubo gutxiago izango direla. Egia da gutxiago jasoko dugula, baina bakoitzari irakurri egin behar dio, orain egiten ez dugun lana. Hasi gara jada irakurketak egiten.

Bilera erronda bat egin da hau guztia azaltzeko. Zalan-tzarik edo agertu da?

Gutxiago kutsatzen duena saritu nahi du Usurbilgo Udalak, sortzez besteko ordainketa sistema berriaren bidez.

Aurkezpenen tasaren esplikazioa eta ontzia nola atera behar den azaldu genuen. Zalan-tza baino gehiago aholkua; ontziak beteta atera behar direla. Bestela gehiago ari dira ordaintzen, erdi hutsik aterako ontziagatik.

“%83KO GAIKAKO BILKETAN GAUDE EGUN” Atez ateko bilketa jarri zenetik beste pauso bat zero zabor norabidean?

Poligonoetan saiakera egin genuen orain herrian erreusarekin saiakera hau egingo dugu. Gaur egun %83ko gaikako bilketa gaude. Emaitzetan salto handi bat ez dugu espero, baina igandeetako bilketa hobetu nahi dugu. Ikusiko dira emaitzak, eta gero aztertuko dugu ondo doan. Sistema optimizatzen joatea da kontua.

Bertako teknologia baliatu da ordainketa sistema berri hau martxan jartzeko?

Software-a hemen egin da. Lasarte eta Donostiako enpresek garatzea lortu da. Kode librean. Beste udaletxeetara zabalteko, Foru Aldundiarekin hitzarmen bat egin behar izan dugu, horrek zaildu digu pixka

bat lana. Baina ideia da guretzako bakarrik ez, beste herrietarako ere baliatzea.

Ontzien banaketa

Ekainak 20, ostirala

18:00-20:00 Oiardo Kiroldegian.

Ekainak 21, larunbata

10:00-13:00 Oiardo Kiroldegian.

Ekainak 25, asteazkena

18:00-20:00 Santuenea 12, auzo elkarteok lokalean.

Ekainak 26, osteguna

18:00-20:00 Aginaga Eliza Zaharra.

Ekainak 27, ostirala

18:00-20:00 Oiardo Kiroldegian.

Ekainak 28, larunbata

10:00-13:00 Oiardo Kiroldegian.

Oharra: nork bere etxeko helbidea eman eta ontzi gris bat jasoko du doan.

Informazioa, Atez Ate bulegoan

Puntapax kalea, 10 behe. Astelehenetik ostiralera, 9:00-14:30. Telefono zenbakia: 900 776 776. E-posta: atezate@usurbil.net Erreusa ateratzeko ordutegia: igande goizetan, 6:30-9:00 artean.



2014
SAN
JOANNAK
gehigarri berezia



OILASKO BILTZAILEEN EGUNA, HAUR ZEIN GURASOEN EGUN HANDIA

Haur, gazte eta heldu ibili izan dira oilasko bilketan. Baina iaztik, Kalezarren, oilasko biltzaile lanetan haur zein gurasoak aritzen dira. Eta gazteen ardurapean geratu da San Joan eskea. Aurten ere, hala izango da.

Oilasko Biltzaileen Eguna ekainaren 21ean ospatuko da. Baina guraso batzuk lehenago hasi dira prestaketa lanekin. Ekainaren 18an amaitzen zen oilasko biltzaile bazkarirako txartelak eskuratzeko epea (aurreko asteko NOAUA!n iragarri genuen bezala, Kaffa kafetegian izan dira salgai txartel horiek, ekainaren 18ra arte).



Goizean goizetik martxan izango dira Oilasko Biltzaileak. 9:00etan abiatuko dira.

HAMAIKETAKOIA SAIZARREN

Goizeko 9:00etan abiatuko dira. Lehen geldialditxoetako bat Ibarrolan egingo dute. Eta hamaiketakoia Saizar sagardotegian izango da.

Eta eguerdiko 14:00etan, plazan izango dira berriro bueltan, bazkariari ekiteko prest.

BAZKARIRAKO PLATERA, EDALONTZIA... NORBERAK ERAMAN BEHAR DU ETXETIK

Herriko taberna batek prestatuko du jana. Baina norberak bere etxetik eraman behar ditu bazkarirako beharrezkoak diren gauzak: edalontziak, platerak...

10 URTE AZPIKO HAURRAK, GURASOEN LAGUNDUTA

Oilasko Biltzaileen Egunean, ez dago adin mugarik. Baina antolatzaileek ohar bat igorri nahi dute: 10 urte azpiko haurrak, etxekoren batekin edo laguntzaile batekin agertu behar du.

**ANDER
ARANZAZISTROKI**

**industri
garbiketarako
sistema eta
produktuak**

*Ondo pasa
San joanetan!*

Goieko
INDUSTRIA GARBITASUNERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTOAK

667 680 236

Ondo pasa San Joanak!!

izagirrelektrizitatea@hotmail.com

izAgirre

ELEKTRIZITATEA

Goiz Argi etxea, 37 kalezar
Telf.: 943 36 50 95
Mugikorra.: 609 068 111
Faxa: 943 37 65 87

SAN JOAN ESKEA

HERRIRA ZABALTZEN DEN OHITURA ZAHARRA

Kalezarrentzako urteko festa egun bereziena, tradizio luzeena izango duen jaietako ekitaldia dugu San Joan eskea. Ekainaren 23ko erronda abiatzeko aurten, astelehen arratsaldeko 15:00etan elkartean bilduko dira eskean irtengo direnak, bertolari eta trikitalariekin. Uribetarren etxea, Txara, Troia, Ibarrola aldeko bidean dauden eraikinetatik barrena egingo dute erronda. Pozik asko gainera, Jai Batzordetik gogorarazten dutenez, “ongi etorri beroa egiten digute eta, sagardo botila eta guzti”.

Kalezarren bakarrik ez, Kaxkora ere jaisten dira San Joan eskean. Aurten, ohi baino goizago, berrikuntza bat txertatu baitute ibilbidean. Arratsaldean ibiliko dira Kaxkoko tabernetan eta ez orain arte bezala, afalostean. Gero bapo eta goiz jatera doaz Saizar sagardotegira. 22:00etan Pikaolan egon beharko dute eta puntual, San Joan jaietako sua pizteko prest.



Pikaolan piztuko da San Joan sua.
22:00etan hasiko da ekitaldia.

SUA PIKAOLAN

Garbigunea Atallura lekuz aldatu zutenetik, iaztik Pikaolara itzuli ziren San Joan sua piztera. Aurten bigarren urtez jarraian, ekainaren 23an, 22:00etan bertuko dute ohitura zaharra, gune berean. Auzotarrak eta herriko beste hainbat lagun bilduko ditu gau magikoak. Auzoko festak izan arren, herri erdiguneko herritar gehien erakartzen duen sua baita Kalezarrekoa. Ia pizteko arazorik ez dagoen. Mehatxu bakarra izan ohi dute eta

euria. Azken urteotan zortea izan dute eta eguraldi ona tokatu zaie. Aurten ere hala izatea espero dute.

BELAUNALDI BERRIAREN ESKU

Trikiti eta bertso artean joango den ekitaldia ospatu ostean, Kaxkorantz joango dira berriz eskean irtendakoak, Andatzpe elkartera. Bertan San Joan bezperan afaltzeko biltzen den lagun talde bat egoten omen da. Han ere “beti gara ongi etorriak” diote Jai Batzordetik. Kalezarko bizilekuetatik barrena eginiko errondarekin amaituko dute, goizaldeko ordubiak aldera, “kalezartarrentzako urte guztiko festa esperatuena. Festa giroko tradizioa”, Jai Batzordetik berri eman duteenez. Gazte eta heldu, “kalezartar guztiontzako den festan” parte hartzera animatzen dute antolatzaileek. Belaunaldi berriek hartu dute lekukoa San Joan eskean, eta ahal duten neurrian, belaunaldiz belaunaldi transmititu den ohitura bizirik mantentzeko konpromisoari eusten diote.

Ondo pasa San Joanetan!

SAIZAR
Sagardoa • Sidra Natural

Dasta ezazu gure
Sagardoa

www.sidrassaizar.com

JAI EGITARAUA

Ekainak 20 ostirala

Jaien hasiera

18:00 Buruhandiak.

19:00 Auzotarren arteko jokoak.

23:30 Kontzertuak: The Hastelehen's, Zurraia, Izeberg, Laket.

Ekainak 21 larunbata

Oilasko Biltzaileen Eguna

09:00 Oilasko biltzaile txikien irteera.

14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria. Tiketak Kaffa kafetegian (ekainaren 13tik 18ra).

16:00 Musa (izen ematea 15:30ean itxiko da).

18:00 Herriko dantzariak.

Ondoren, Buruhandiak.

00:00 DJ Gude.

Ekainak 22 igandea

Umeen Eguna

10:00 XII. Ume krosa.

11:30 Jolasak.

16:30 Tailerrak.

18:00 Txokolatada.

Ondoren, buruhandiak.

19:00 DJ Burundarekin dantzaldia.

Ekainak 23 astelehena

San Juan Bezpera

15:00 San Juan eskearen irteera.

22:00 San Juan sua.

Ondoren, eskearen jarraipena.

Ekainak 24 asteartea

San Juan Eguna

11:30 Meza Nagusia.

Ondoren, toka.

13:00 Gorritiren Showa.

17:00 Buruhandiak.

19:00 Soka Dantza.

Ondoren, sardina eta sagardo dastaketa Saizar Sagardotegiaren eskutik.

Antolatzailea: Kalezarko Jai Batzordea.





- komertzial instalazioak
- beira bikoitza · segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak · ispiluak
- barandak · kristal mota guztiak...

943 37 17 33- 610 45 93 45



Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



LARRAÑAGA
PLASTIKOAK E.A.

INDUSTRIARAKO
PIEZA MOLDAKUNTZA

Ugaldea industrialdea, 1. USURBIL
Telf: 943 36 14 46 / 943 37 33 05
Fax: 943 37 70 01
admon@larranagaplasticos.com

Josue
Igeltseritza

Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

606 37 21 05

Ondo pasa
San Joanetan!

Igeltseritza orokorra

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

UDARREGI
IKASTOLA



Ondo Pasa San Joanetan!

943 37 40 61



Egilea: José Manuel Garrido Cobo

SANJUANAK 2014 - ANDOAIN

OSTIRALA 20

Nafarroa plazan: KAUTA eta INGO AL DEU
Goikoplazan: dantzaldia Udal Musika Eskolako
Bandarekin

LARUNBATA 21

Nafarroa plazan: SU TA GAR eta LAKET
Goikoplazan: SON KANDELA

IGANDEA 22

Nafarroa plazan: SOUND SYSTEM GAUA

ASTELEHENA 23

Nafarroa plazan: Gazte Jai DISKOFESTA
Goikoplazan: ESPALOIAN
(Itoiz taldearen tributo banda)

ASTEARTEA 24

